


# KULTUR-ARTE

HAURRENTZAKO UDAKO TAILERRAK  
TALLERES INFANTILES DE VERANO



**KULTUR-ARTE** proiektua Irati Arteagak eta Aintzane Revueltak bultzatutako ekimena da. Hauek, Banda Bat elkarte sozio-kulturalaren parte izateaz gain, haurrekin lanean esperientzia duten hezitzaileak dira.

**KULTUR-ARTE** proiektuaren ekintzak Urgull mendian eta horren barruan Guardetxean aurrera eramango dira. Leku hau Donostiako hirian kokatzen da eta orain direla 14 urtetik Banda Bat elkarteak kudeatutako gunea da. Gainera, pribilegiatutako tokia da biodibertsitateak, paisaiak eta naturak inguratzen dutelako.


**KULTUR-ARTE** 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, Gipuzkoako lurraldean bizi direnentzako hain zuzen ere. Ekintzak Ekaina eta Uztailean zehar burutuko dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 13:30etara. Honekin batera, Santa Maria eliza Donostiako alde zaharrean kokatutakoa, haurren sarrerarako eta irteerarako gunea izango da.

Proiektu honek zenbait tresna hezitzaile erabiltzen ditu kulturarekiko hurbiltasuna ekintza artistikoen bidez lortzeko. Adierazpena eta sormena, heziketa artistikoaren bidez lortzen direnak, ez dira idealak, gure proiektuaren oinarriak baizik.

Gure ustez, pertsona orok adierazpen artistikoaren onurak ezagutzeko eta esperimentatzeko eskubidea dauka. Onura hauen artean, banakoaren nahiz taldearen garapena eta indartzea daukagu bai gizarteratzeko, bai adimenari dagokionez, bai fisikoki baita espiritualki ere.

Haurren gehienezko kopurua 20 pertsonekoa da, hauek bi taldeetan banatuko dira 6 – 8 urte tartekoak eta 9 – 12 urte tartekoak. Ekintzak batzuetan bi taldeek bat osatuko dute, denek talde berdinean parte hartzeko.

Eguneroko hamaiketakoa haurren ardura duten pertsonen eskuetan uzten da.



Izen emateak Apirilak 1etik aurrera.

Udalekuen epea: Ekainak 23tik Uztailak 31era.

Astea: 55 euro


2 aste: 100 euro

4 Aste ( Ekainak 30etik – Uztailak 25): 180 euro

5 Aste (Ekainak 30etik Uztailak 31era): 200 euro

Helbide elektronikoa:  
[kulturarte@guardetxeabandabat.org](mailto:kulturarte@guardetxeabandabat.org)

Harremanetarako: 678105262 / 680864031



## **XEDEA**

Heziketa artistiko baten garrantzia aldarrikatzen dugu, pertsona bakoitzaren gaitasunetan sinisten dugu eta horrekin batera talde lanean. Hauek erlazio onak sortzeko bideak direla uste dugu eta gainera, harreman hauek gure oreka eta ongizate pertsonala sustatzen dute.

Haurrak beraien ikaskuntzaren protagonistak dira eta gure ardura beraien laguntzaileak izatea da. Euren aurkikuntza prozesuan, artea eta kultura tresna gisa eskeiniz banakoaren pentsamendua bultzatuko dugu eta elkarlana besteekin batera.

## **ZENTROAREN TALDE HEZITZAILEA**

Hezitzaile taldea osatzen duten begiraleak Irati Arteaga eta Aintzane Revuelta dira. Biek heziketa munduan esperientza dute, planifikatutako, elkarbanatutako eta koherentziaz egindako esku hartzeen bitartez. Haurrak zaintzeko eta heitzeko pertsonal kualifikatua da. Taldeko kide guztiek legeak ezarritako beharrezko titulazioa nahiz formakuntza gehigarria eskuratu dute.

## **PROIEKTUA**

Kulturarte haurrei zuzendutako aisialdirako jolas lekua da, Donostiako erdikaldean kokatzen dena. Proiektu hau gurasoei edo haurren tutoreei zuzenduta dago, haurren udako oporraldietan beraien kargu ezin direlako egin. Haurren olgetarako gunea izanda, hauen garapen artistikoa lortzeko txoko hau, ikaskuntza parte hartzailearen bitartez beraien gaitasunak trebatzeko tokia ere bada.

Gurasoei edo tutoreei leku ziur bat eskeintzen diegu, beraien seme alabek eredu ez formal, dibertigarri eta ludiko batean garatzen jarraitzeko.

Adierazpen artistikoari garrantzi handia ematen diogu bere era guztietan. Honekin batera, natura ezagutzea, behatzea, maitatzea pertsonen sormena pizten duen eta irudimenaren atak irekitzen dituen giltza iruditzen zaigu.



Proiektuaren koordinatzaile eta begiraleak:

## Aintzane Revuelta

Donostian jaiotakoa eta Mexikon bere bizitzaren aldi luze bat bizitakoa, bere ibilbide profesionala 2006an hasi zen gimnasiako klaseetan laguntzaile moduan, 3 eta 12 urte tarteko hurrekin kontaktuan hasiz. Hortik aurrera, hurrekin, aisialdiarekin eta mundu artistikoarekin zerikusia duten ekintzak egin ditu. Hauen artean, dantza bere oinarri nagusizat hartu du bere hobetze prozesuan.

Gaur egun Donostiako hirian dantzako begirale moduan egiten du lan, "Carmen Garmendia", "Casa de Cultura de Egia" y "Guardetxe" espazioetan. Gainera, zenbait ikastolekin kolaborazioak egiten ditu, hurrekin.

Bere formakuntzari formalari dagokionez, EHUko Pedagogiako Gradua aurrera eramaten ari du, 3. urtean dagoelarik. Formakuntza honen gehigarri moduan beste proiektu batzuetan parte hartzen du, kultura eta artea bultzatzen dutenak.





## Irati Arteaga

Lanzaroten jaiotakoa eta urte asko Donostian bizita, clown, antzerki, dantza aereo eta haurren munduari buruzko jakin mina piztu zitzaion. 2010-ean aisialdi munduan sartu zen eta bere formakuntza artistikoarekin hasi zen: clown eta dantza aereo.

Baina bere gizarte kontzientzia ezin zuen atzean utzi eta hiri honen, Donostiaren, barruko beste mundu batzuk ezagutzen hasi zen, bolondres moduan eta elkartegintzan sartu zen: Atzegi, aratzgialdea, algaraklown eta bandabat elkarteen eskutik. Guztietan momentu paregabeak bizi zituen.

Ildo berdinetik jarraituta, Haur hezkuntzako teknikari titulatu honek (Donostiako easo politeknikoa), bere formakuntza formalarekin jarraitzen du EHUko Magisteritzako Unibertsitatean, Lehen Hezkuntzako Gradua egiten duelarik.

# ACTIVIDADES

Ekainean eta Uztailean zehar hurrengo diziplina artistikoekin lotutako ekintzak egingo ditugu:


## Dantza...

Gurea sormen hizkuntza da, gorputza komunikaziorako bide berri moduan erabiltzen dugu. Dantza pertsona guztientzat izatea lortu nahi dugu, dantzaren kanon klasiko eta zurrunetatik urrunduz dantza garaikidearen munduan sartu nahi dugu. Hemen, dantza askea bihurtzen den tokian, gorputza gure lehenengo baliabidetzat hartuko dugu.

Gure ahuleziak bideratu baino, pertsona bakoitzaren gaitasunetan arreta jartzen dugu, gure ikasleek egin dezaketena da garrantzitsuena. Ikasleak beraien gorputz biziarekin jartzen dira kontaktuan inongo inposaketarik gabe. Pixkanaka zurruntasun guztia atzean utzi dutela sentituz, malguagoak ikusten dira eta "bai, ahal dut" sentrazioa bereganatzen dute.

Guztiok ahal dugu dantza egin. Dantza pertsona guztiek esperimintatu behar duten eta sentitu behar duten gauza bezela ikusten dugu, beraien mugak edo gaitasunak oztopotzat hartu gabe. Gorputza mugimendura konektatzen dugu eta norberaren onarpena bilatzen dugu bere egoera emozionalak hobetzen eta gorputz hizkuntza berri bat sortzen.

## Dantza guztiontzako




## Zirkoa...

Aipatu beharreko beste diziplina bat zirkoa da. Hain zahar bezain dibertigarria, urteetan zehar artearen etxea izan da, irudimenarena, sormenarena eta talde lanarena. Espazio honetan, haur bakoitzaren gaitasunak beste ekintzen oinarriak dira, malabareetan, dantza aereoan eta clownean.

Emozionala eta fisikoa, zirkoan murgiltzen garenean adimenak eta gorputzak bat egiten dute. Besteekin eraikitzen ditugun harremanak elkar ikaskuntzarako eta barnean dugun artista aurkitzeko ezinbestekoak dira.

Era honetan, zirkoaren diziplina ezberdinak ezagutuko ditugu. Hauek, herri zaharren ohituretan oinarrituta daude, gaur egungo adin ezberdineko pertsonen gozamenerako eta harridurarako.






## Antzerkia...

Ekintza honen bitartez, pertsona bakoitzean sormena, irudimena, inprobisatzeko gaitasuna eta nortasunaren askatasuna sustatu nahi dugu. Antzerkia, besteekin harremanak sortzeko eta adierazpenerako diogun beldurra galtzeko erabiltzen dugu. Norberaren errealizazioa lortzeko oztopatzen diguten gauzak mozteko balio zaigu. Horregatik, antzerkia lotsarentzako botika moduan ikusten dugu, gure barnean daramagun sua pizteko baliagarria.

Banako bakoitzaren nortasuna garatu eta bultzatu beharreko gauza bat dela uste dugu, ez mugatu behar dena, pertsonak duen gozamenerako gaitasuna lortzeko baliagarria. Banakako nortasunean arreta jarriz, elkarrenarteko errespetua, bizikidetzak baikorra eta banatutako parte hartzea lortzen dugu.

Adierazpen honen protagonistak haurrek izango dira, antzerkia ez delako ekintza artistiko hutsa izango, sentsibilizazio kulturala lortzeko tresna baizik.



## Musika...

Sormen artistikoko prozesuan nahiz dantzan, zirkoan eta antzerkian lagunduko digu musikak. Ekintza hauen bitartez entzumen musikala eta erritmoa landuko ditugu, musika tresna ezberdinak ezagutuko ditugu eta era dibertigarrian doinu ezberdinen interpretazioa egingo dugu.



## Margolaritza...

Adierazpenaren eta artean funtsezko atala dugu margolaritza. Izaten uzten dugu eta gure irudimena hegan egiteari ekiten dio. Besteetaz ikasten dugu eta gure barnea ezagutzen dugu paper batean pentsamenduak askatuz eta bertan irudikatuz.

Haurrek beraien kaxara adieraziko dute nahi dutena, guretzako ez dago margolan bakarra eta perfektua, ez dago kolore bakarra, kolore guztiak errespetatzen ditugu bai gureak bai besteenak, bakoitzaren sorkuntza goraiatzen dugu. Sormenarekin jaiotzen gara eta gerorako begira zaindu behar dugun gaitasuna da.

## Txangoak...

Txangoek hurrei beraien inguruko errealitatea zuzenean ezagutzeko balio zaie, horregatik guretzat funtsezkoak dira haurren dibertsioa eta garapena emateko. Hondartzara egingo diren irteerak, Urgull menditik egingo diren paseotxo eta jokuak, natura ezagutzeko eta bertan sortutako sentazio eta harridura momentuak beste lagunekin partekatze orduan emozio eta ezagutza berri asko ekartzen dituzte. Gainera, irteera hauek euren inguruarekiko jakin mina piztu eta beste ezaugarri batzuek garatzeko laguntzen dute: eskuzabaltasuna, enpatia, naturarekiko harreman baikorrak, kulturaren hurbilpena eta errealitatearekiko elkarrekintza kontzientea.


**Natura...**

**Altxorrak...**

**Kultura...**

**Adierazpen askatasuna...**

**Abenturak...**



## Eskulanak...

Eskulanak adierazpen artistikoari nahiz kontzeptualari askatasuna ematen dio, banaka eta taldean gure irudimenarekin harremanak sortzeko bidea eraikiz.


Kurtso honen parte hartzaileek abentura honen protagonistak izango dira, kolore, testura, usai eta forma ezberdinak erabiliz.

## Jokuak eta gynkanak...

Jokuaren bitartez haurrek esperimentatu, ikasi, inguratzen dien errealitatea ulertu, tentsioak askatu, irudimena garatu, argitasuna ireki, gatazkak ebatzi egiten dituzte. Horregatik, beraien garapenerako ezinbestekoa iruditzen zaigu, alde fisiko, kognitibo, psikologiko eta sozialean lagunduz.


Gainera, gizakiaren olgetarako lehenengo ekintza da. Haurra jaiotzen denean hasten da, kanpoko errealitatearekin eta bere irudikapenekin lotura ezartzen duenean. Haurrak edozein objektua hartu eta hegan egiteko botatzen duenean, une hori errepika ezina bihurtzen da, komunikazioa hasten da. Joku horrek ez ditu alde aurreko araurik ezagutzen, ez ditu inguruko eskakizunei erantzuten, ez dago "ondo egiteko" beharrik eta era horretan haurrek ezartzen dituzten harremanak berdintasun maila batetik abiatzen dira.

Hau guztia sustatzeko, jokuetaz eta gynkanataz baliatuko gara. Gynkanak ekintza ezberdinetaz osatuta daude, adimena, talde lana, adierazpena eta komunikazioa, inguruarekiko erlazioa lantzeko ezinbestekoak.



HORARIO	LUNES	MARTES	MIÉRCOLES	JUEVES	VIERNES
09:00-9:30	Sarrera	Sarrera	Sarrera	Sarrera	Sarrera
09:30-11:00	Dantza	Zirku	Eskulanak	Gynkana	Txangoá
11:00-11:30	HA	MAI	KE	TA	KOA
11:30-13:00	Eskulanak	Margolaritza	Dantza	Zirku	Txangoa
13:00-13:30	Irteera	Irteera	Irteera	Irteera	Irteera

Astero planifikazio zehatza egingo da, ostiralero parte hartzaileei banatuko zaie.



## KURTSO BUKAERA...

Gure udako ekintzak bukatzeko eta aste hauetan zehar egindako sorkuntza artistikoa ikusteko antzerki saio bat egingo dugu "Kultur-arteko" haurrek egindakoa.

## METODOLOGIA

Jarraituko dugun metodologia parte hartzailea izango da, praktikak teoriak baino pisu handiagoa hartuko du. Proposatutako eredu parte hartzailearen barruan, haur bakoitza bere ikaskuntzaren protagonista izango da, egingo dugun lana bere behar eta gaitasunetan oinarrituko da.

Begiraleen papera gidariarena izango da, ekintzak gidatuko dituzte eta gatazkak ebazteko beharra balego bertan egongo dira irtenbidea bilatzeko prest edo ezusteko egoerei aurre egiteko prest, irekiak izango dira eta plangintzan moldaketak egingo dituzte haurren beharrei erantzuten.

Lanaren metodoa lerro jakin bat jarraitu behar duela azpimarratzen dugu, gertatu daitezkeen aldaketei irekiak egongo direnak. Erabiliko den metodologia beraz, parte hartzailea, ludikoa eta aktiboa izango da kurtsoaren ekintza artistikoak egiteko orduan.

Kurtsoaren gaitasuna 20 haurrentzako izango da, hauek bi taldeetan banatuko ditugu:

6-8 urte bitartekoak.

9-12 urte bitartekoak.

## HELBURUAK

-Banakako arreta egokitzea haur bakoitzaren erritmoa uneoro errespetatuz.

-Besteekin elkarbizitza eta harreman pertsonalak sustatzea.

-Taldeko nahiz banakako autoestimua igotzea lan artistikoaren bitartez.

-Haurren berezko gaitasunak sustatzea haienganako kalterik gabe.

-Jokua dibertsio moduan erabiltzea, naturaren ezagutza sustatzeko eta hizkuntza ezberdinen praktikarako, horien artean euskera.

-Haurren garapen osoa eta orekatua sustatzea aspektu fisiko, emozional, adimenezkoei kasu egiten. Beraien beharrei arreta jarritz eta beraien gaitasunak indartuz, euren interesak errespetatuz eta era berean adierazpenerako era ezberdinak ahalbidetuz.

-Sormenaren bidean eragitea. Bizipenak gure sentsibilitatearen eragile izan dezaten.

-Besteekin eta besteetatik ikastea.

-Natura gureganatzea. Naturarekiko harreman baikorrak sortzea.

-Adierazpen kultural ezberdinak errespetatzea.

-Bizi duten errealitateari buruzko jakin mina piztea.

-Munduarekiko eta beste kulturekiko jakin mina piztea.

## LEKUAREN EZAUGARRIAK

Guardetxea haurren beharretarako egokitutako lekua da, lasaia, eroso, espazio handiekin atentzioa eta sormena garatu dezaten. Ondo argitutako lekua da, aulkiak eta mahaiak ditu ekintza ezberdinak egin ahal izateko. Apal ezberdinak dituzte eskuragarri izan beharko duten materialarentzat, eskulangintzako tailerretan egingo dituzten gauzak bertan gordetzeko, beraien lekutxoa izateko.

Kanpoaldean, jolasteko, mugitzeko eta donostiako paisai zoragarriaz gozatzeko tokia dute.

Urgull mendiko igoeran kokatuta dago Guardetxea, Donostiako hirian, alde zaharrean eta Santa María elizaren gainean.

Lokala era honetan banatuta dago:

Barruan:

Gela handi bat eszenatoki bat duena.

Botikina.

Komunak.

Sukaldea.

Kanpoaldean:

Espazio zabala dugu, belardia eta hesitua bertako parte hartzaileen segurtasunerako.

## ORDUTEGIAK ETA ZERBITZUAK

Ekaina eta Uztailean espazioa irekita egongo da eta kulturarteko ekintza ezberdinak aurrera eramateko prestatua bere ordutegia hau izanda: goizero 9:00etatik 13:30etara.

Haurren sarrera eta irteera Santa Maria elizan egingo da, Donostiako alde zaharrean kokatzen dena.

# GUARDETXEA

